

ONGI ETORRI EUSKARAREN MUNDURA

Harrera jardunaldiak

Urriak 10 - 11
Europa Jauregia
Gasteiz

SARRERA

Euskararen normalizazio eta biziberritze prozesuaren egungo erronketako bat da euskal herritar berriak helburu hori erdiesteko aliatu egitea. Horretarako, ezinbestekoa da hizkuntza harrera egokia gauzatzea. Premia hori sumatuta lanean ari dira hainbat eragile eta instituzio. Nolanahi dela, sortzen ari diren gogoeta eta praktika horiek elkarrekin partekatu eta amankomunean bideratzea premiazkoa da hizkuntza harrera egokira ailegatzeko. Hain justu, orain arteko azterketa, hausnarketa eta indarrean jarritako praktikak elkarbanatzea dira jardunaldi hauen funtsa.

Gero eta gehiago dira euskal herritar berriak, beren jatorrizko bizilekuak utzi eta bizimodu hobe baten bila heldu zaizkigunak. Gainera, onura dakarte gure jendartera: ehun produktiboari eusteko ezinbesteko elementu zaizkigu. Ildo horretatik, datorren hamarkadan milaka eta milaka gehiago etorriko direla aurreikusten da.

Euskararen normalizazioan eta biziberritzean aurrera egin nahi bada ezinbestekoa da gertakari hori aintzat hartzea, eta ezinbestekoa da euskal herritar berri horiei hizkuntza harrera egokia egitea: euskarara iristeko eta euskaraz jabetzekoa bidea ematea. Are, euskararen komunitateko kide aktibo bihurtzea.

Premia horretaz jabetuta, hizkuntza harrerari buruzko gogoeta eta esku-hartze bide bat ari da lantzen aurrean. Honen guztiaren helburuak bi dira, estuki elkar lotzen direnak: batetik, hizkuntza harrerari buruzko ezagutza ekoiztea; eta, bestetik, ezagutza horretatik abiatuta harrera protokolo egokiak diseinatzea, erakunde eta eragileen aldetik esku-hartze egokiak bideratzeko.

ONGI ETORRI EUSKARAREN MUNDURA

Harrera jardunaldiak

Urriak 10 -11

Europa Jauregia, Gasteiz

ANTOLATZAILEAK:



EUSKALGINTZAREN
KONTSEILUA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA
DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

LAGUNTZAILEAK:



araba álava
foru aldundia diputación foral



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

EGITARAUA URRIAK 10



09:30

HARRERA ETA IREKIERA EKITALDIA

Aitor Aldasoro Iturbe, Eusko Jaurlaritzaren
Hizkuntza Politikarako sailburuordea
Idurre Eskisabel Larrañaga, Euskalgintzaren Kontseiluko idazkari nagusia

10:00

MIGRAZIOAREN KOKAPENA

Arkaitz Fullaondo Elordui-Zapaterietxe, Ikuspegiko ikerlarlaria,
EHUko irakaslea. (Hego Euskal Herria)
Eguzki Urteaga Olano, Soziologoa, EHUko irakaslea. (Ipar Euskal Herria)

11:30

KAFERAKO ETENALDIA

12:00

EUSKARAK EMATEN AL DU ATERPERIK?

Laura Penagos Rodriguez, Kolonbian jaioa. 2008tik bizi da Euskal Herrian
Celeste Agüero, Argentinan jaioa. 2018tik bizi da Euskal Herrian
Ruth Mary Pizarro Cuellar, Bolivian jaioa, 2023tik bizi da Euskal Herrian
Ruba Hassan, Sirian jaioa, 2014tik bizi da Euskal Herrian

13:00

HIZKUNTZA HARRERA EGOKIRAKO ZUMEAJ KARTZEN

Mari Jose Arrieta Sagarna, Bilboko Udaleko Euskara zuzendaria
Onintza Olaizola Aristi, Euskaltzaleen Topagunea
Itziar Eizagirre Irureta, Gipuzkoako Foru Aldundia

14:00

BAZKALTZEKO TARTEA

15:00

ETORRI ZIRELAKO GARA

Xabier Aierdi Urraza, Soziologian doktore eta EHUko irakasle jubilatua
Belen Uranga Arakistain, Soziolinguistika Klusterreko ikerlaria eta Bat
Soziolinguistika Aldizkariaren koordinatzailea

URRIAK 11



09:00

URRETXUKO HARRERA EREMUA

Beñat Zamalloa Akizu, Gazteria teknikaria Urretxuko Udalean

10:15

HEZKUNTZA HARRERA GUNE, EUSKARA HARRERA GUNE

Ruben Sanchez Bakaikoa, Gasteizko Alde Zaharreko eta
Anhitzakeko dinamizatzaile ohia
Aitor Barriocanal Marquinez, Goian, Gasteizko Alde Zaharreko proiektu hezitzailea
Egoitz Urrutikoetxea Laskibar, Seaska
Yasmine Khris, LABA kidea
Arantxa Caminos, Lantxotegi Elkarteko langilea,
Kabia Programan komunitate hezitzailea

11:45

KAFERAKO ETENALDIA

12:15

GURE HITZAK. NOLA IZAN HARRERA HERRI EUSKALDUNA?

Leire Amenabar Larrañaga, Gizarte Psikologian doktoregaia EHU

13:00

HELDUEN EUSKALDUNTZE-ALFABETATZEAREN ARDATZKOTASUNA

Aize Otaño, AEKko ordezkaria

14:00


KLOWNDORIOAK

URRIAK 10

🕒 10:00-11:30

MIGRAZIOAREN KOKAPENA. NORTZUK DITUGU EUSKAL HERRITAR BERRIAK?

Oharkabeen bada ere, aurreiritziz eta estereotipoz betea izan ohi da migratzaileen gaineko begirada. Hori zuzendu gabe, nekez hurbilduko da euskararen komunitatea euskal herritar berriengana. Gainera, Hego Euskal Herrian eta Ipar Euskal Herrian tankera diferenteko fenomenoak ari dira gertatzen. Arloko ikertzaileek eskainiko dute argazki xehea.



Arkaitz Fullaondo Elordui-Zapaterietxe

Ikuspegi Immigrazioaren Euskal Behatokiko ikerlaria, EHUko irakaslea - (Hego Euskal Herria)

Soziologian lizentziaduna (Deustuko Unibertsitatea); baita Hiri Kudeaketa eta Balorazioan Doktorea ere (Kataluniako Unibertsitate Politeknikoa); Gaur egun UPV/EHUko Soziologia eta Gizarte Langintza Sailean ematen ditu eskolak, zehazki Gizarte Langintza Unibertsitate Eskolan, Gizarte Langintzan Graduan. Ikuspegi Immigrazioaren Euskal Behatokian Ikertzailea da eta Londreseko Architectural Association School of Architecture-en doktorego ondorengo ikerketa egin zuen.



Eguzki Urteaga Olano

Soziologoa, EHUko irakaslea - (Ipar Euskal Herria)

Soziologiako irakaslea Euskal Herriko Unibertsitatean (UPV-EHU), eta ikertzaile elkartua Social and Business Research Laboratoryn (SBRLab), Rovira i Virgili Unibertsitateko ikerketa-zentroan. 30 libururen egilea da, bai eta unibertsitateko artikulua ugarirena ere, bai Europan, bai Latinoamerikan, bai Kanadan. Aldizka hainbat komunikabiderekin ere kolaboratzen du. Irakasle gonbidatua izan da Europako hainbat unibertsitatetan eta Lan Harremanak eta Jakin aldizkarietako argitalpen-batzordeko kidea da. Era berean, Eusko Ikaskuntzako lehendakaria, Eusko Ikaskuntzako lehendakariordea eta Euskal Herriko Garapen Kontseiluko Mahaiko eta Zuzendaritza Kontseiluko kidea da.

URRIAK 10

🕒 12:00-13:00

EUSKARAK EMATEN AL DU ATERPERIK?

Zer dute euskal herritar berriek euskal hiztun komunitateari esateko? Ondo hartzen al ditugu? Zerk baldintzatzen du euskarara hurbilketa? Zer egiten dugu ondo? Zer gaizki? Zer egin genezake hobetzeko?



**Laura Penagos
Rodriguez**

Kolonbian jaioa.
2008tik bizi da Euskal
Herrian.



Celeste Agüero

Argentinan jaioa.
2018tik bizi da Euskal
Herrian.



Ruba Hassan

Sirian jaioa.
2014tik bizi da
Euskal Herrian.



**Ruth Mary Pizarro
Cuellar**

Bolivian jaioa.
2023tik bizi da
Euskal Herrian.

URRIAK 10

🕒 13:00-14:00

HIZKUNTZA HARRERA EGOKIRAKO ZUMEAK JARTZEN.

Nolako harrera egiten da gaur egun? Euskara ardatzean duen harrera egiteko aukerarik bada? Ba al da horretarako eskumen eta baliabiderik? Zein bide urra daitezke egungo tresnekin? Zeintzuk beharko lirateke euskara harrera gune izateko?




Mari Jose Arrieta Sagarna

Bilboko Udaleko Euskara zuzendaria.



Itziar Eizagirre Irureta

Gipuzkoako Foru Aldundiko Giza eskubidea eta Kultura demokratikoko teknikaria.



Onintza Olaizola Aristi

Euskaltzaleen Topaguneko Hizkuntz aniztasun arloaren arduraduna.

URRIAK 10

🕒 15:00-16:30

ETORRI ZIRELAKO GARA.

Migrazioa ez da fenomeno berri bat. 50-60ko hamarkadetan, esaterako, milaka lagun etorri ziren, batik bat, Espainiatik. Gerora, azken hamarkadetako euskararen normalizazio eta biziberritzearen parte izan dira haietako asko. Zer dugu ikasteko esperientzia horretatik?



Xabier Aierdi Urraza

Soziologian doktore eta EHUko irakasle jubilatua

Immigrazio, gizarte-zerbitzu, DSBE eta abarretan aditua, Euskal Herriko Unibertsitateko irakasle titularra izan da 36 urtez. Ikuspegi Immigrazioaren Euskal Behatokiaren sortzailea eta zuzendaria izan zen (2003-2011), eta Begirune Ikerketa Laborategiko zuzendaria, immigrazio gaietan (2014-2016). Egun Begirune Fundazioko presidentea da.



Belen Uranga Arakistain

Soziolinguistika Klusterreko ikerlaria eta Bat Soziolinguistika Aldizkariaren koordinatzailea

Euskal Filologian lizentziatua. Soziolinguistika Klusterreko hizkuntza-teknikari honako gaietan: Hizkuntza-ekologia, hizkuntza-aniztasuna, immigrazioa, BAT Aldizkaria, Hausnartu sariak, Hizkuntzen erabileraren kale-neurketak e.a. HIZNET graduondoko irakaslea, Munduko Hizkuntza Ondarearen UNESCO katedrako kide eta GARABIDE elkartearen kolaboratzaile da. Hizkuntza-aniztasuna eta hizkuntza-ekologiaren inguruko hainbat liburutan eta artikulutan parte hartu du.

URRIAK 11

🕒 09:00-10:15


URRETXUKO HARRERA EREMUA: HARRERA HERRI BATERAKO ORUBE PARTE HARTZAILEA, ERAIKIGARRIA, MOLDAGARRIA, BIZIA ETA BIZIGARRIA

Ikastetxeek kezka azalarazita eta Urretxuko Udalak Gazteria Sailaren bidez sustatuta, 56 haur eta nerabe etorri berri izandakorekin zein autoktonorekin, eta ikastetxeetako eta hainbat erakundetako profesionalekin abiatutako prozesuaren azalpena.



Beñat Zamalloa Akizu

Gazteria teknikaria
Urretxuko Udalean.



URRIAK 11

🕒 10:15-11:45

**HEZKUNTZA HARRERA GUNE,
EUSKARA HARRERA GUNE**

Esperientzia baliagarriak gizarte mugimendutik.



**Ruben Sanchez
Bakaikoa**

Gasteizko Alde Zaharreko
eta Anhitzakeko
dinamizatzaile ohia.



Aitor Barriocanal Marquinez

Goian elkartea. Gasteizko
Alde Zaharreko proiektu
hezitzailea.



**Egoitz
Urrutikoetxea
Laskibar**

Seaska.




Arantxa Caminos

Lantxotegi Elkarteko
langilea, Kabia
Programako
komunitate hezitzailea.



Yasmine Khris

LABA kidea.



URRIAK 11

🕒 12:15-13:00

GURE HITZAK. NOLA IZAN HARRERA HERRI EUSKALDUNA?

Zertan baldintzatzen du harrera hizkuntz minorizatu batetik egiteak? Non bila daitezke elkar-ulertze puntuak, elkar indartzekoak?



Leire Amenabar Larrañaga

Gizarte Psikologian doktoregaia

Psikologian graduatua eta Gizarte Psikologian doktoregaia da Euskal Herriko Unibertsitatean. 'Erakundeen Psikologia eta Esku-hartze Psikosoziala' masterra egin du EHU-n, eta 'Indarkeria politikoko egoeretako osasun mentala' graduondokoa espezializatu da Madrilgo Unibertsitate Konplutentsean. Egun, Euskal Herriko hizkuntza komunitate minorizatuen inguruan ari da doktorego tesia egiten, akulturazio-prozesuen eta biktimizazio narratiben jakintza arloak oinarri hartuta. Bereziki, euskal komunitatearen edo jendarte hartzailearen ikuspegitik ari da ikertzen, jatorri atzeritarreko hizkuntza komunitateekiko dituen akulturazio linguistikoko sinesmenak eta jarrerak. Nazioarteko (*Política y Sociedad*, *International Journal of Intercultural Relations*) eta tokiko (*Uztaro*, *Hik Hasi*) aldizkarietan argitaratu du. Hainbat ikerketa proiektutan parte hartu du (Gune Irekiak Gizarte Ikerkuntza Elkartearen, Emaus Fundazioan, Gipuzkoako SOS Arrazakerian), eta Mikel Laboa Katedrak eta Mintzolak antolatzen duten proiektu-saria (taldean) eta GRAL saria jaso zituen.

URRIAK 11

 13:00-14:00

HELDUEN EUSKALDUNTZA-ALFABETATZEAREN ARDATZEKOTASUNA

Sektorearen ekarpena testuinguru honetan: estrategikotasuna,
baliabideak, didaktika, erronka berriak...



Aize Otaño Lizarralde

AEKko ordezkaria.

